

Antoni eta Antonen benetako koplak

Bazen behin Antoni izeneko neskatila bat. Antoni neskatila garbia zen, familiarako ona, fina eta maitakorra.

Beti leihotik begiratzen zuen gizon eder eta ausarta noiz etorriko zain; bera maitatzera zetorren "kaballerua"ren zain, kaletik paseoan eramango zuenaren zain, besoetan hartuko zuenaren zain, zuriz jantzita ezkonduko zuenaren zain...

Antoniren gurasoak ere horren zain zeuden baina penaz imajinatzen zuten eguna, alaba etxetik joan eta haiek nagusi egitean euren zaintzaz arduratuko zen ala ez pentsatuz. Hala ere, garrantzitsuena euren alaba ezkontzea zen.

Antonik ez zekien nolakoa zen zakil bat, inoiz ez baitzuen bat ere ikusi. Susmoa bazuen nolakoa ote zen bere lagun batek kontatu zion eta behin okinaren semearekin egindakoa, baina nazkaz imajinatzen zuen haren itxura eta harekin egin ziezaioketena pentsatze hutsak nahigabea sortzen zion, beldur eta zalantza beteak ziren harek burura ekartzen zizkion irudiak.

Hori bai, ama izateko grina hain zen handia...

Antoni amets gaizto hartatik esnatu zen.-Eskerrak, zer izan da hori, ene... Antonik bere pitilloak jantzi, ilea gogoz eta patxadaz plantxatu eta -"Gaur jausiko da baten bat"- ahopetik esanez kondoiak boltsoan sartu eta han doa...

Anton BEGIRA NAGO BEGIRA
ZURE BULAR TA GERRIRA,
NIRE ZENTZUMEN GUZTIAK
ONTXE ESNATZEN HASI DIRA.

Antoni ZER EITEN DOZU BEGIRA?
TA SARTU ZAITEZ HARIRA.
BEGIRADA HOIEN SUAZ
NIRE BARRUAK PIZTU DIRA.

Anton HAU EGUN ZORAGARRIA,
ZURE BAIETZA BARRIA.
KALABAZAK AMAITUTA
KENDUKO DUT EGARRIA.

Antoni DENBORA PASATU DA TA
GUSTUA ALDATU JATA,
GAUR GUAPO IKUSTEN ZAITUT
ATERA ZURE EZPATA.

Anton ORAIN DUDANAZ ADITU
HARRITUTA NAIZ GELDITU.
HURBILDU ZAITEZ NIGANA
HEMEN DAUKADANA BEGITU.

Antoni NEU NOA HEMEN AZKARREN,
MUSUKA NAZAZU ARREN.
EDOZER EMONGO NUKE
ZUGAZ LARRUA JOTZEARREN.

Anton EZPAINAK HURBILDU ETA
GUZTIZ BETE ZAIT BRAGETA.
HEMEN BERO EGITEN DU
KENDUKO DUT KAMISETA.

- Antoni** IPINTZEN NAU MUTILTZARRAK,
IKUSTEN DITUT IZARRAK,
BAINA ZENBAT PIKATZEN DU
ANTONTXU ZURE BIZARRAK!
- Anton** AURREALDE BOROBILA,
ARTEZTU JATA... ..MAKILA
DESKARRILATUKO ZEUNKE
BILBOKO FERROKARRILA.
- Antoni** MINGAINA BULAR BATEAN
IPINI DIDAZUNEAN
HOTZIKARA BAT IZAN DUT
ONDO DAKIZUN GUNEAN.
- Anton** ESKUAK FRAKA BARRUAN,
ORAINTXE NAGO ZERUAN.
PLAZERREZ BETE NAZAZU
AZKENENA BALITZ MODUAN.
- Antoni** BEROA BEHETIK GORANTZA,
HASI DA SAIOA ANTZA.
ERANTZI GAITEZEN ETA
BILUZIK EGIN DAIGUN DANTZA.
- Anton** NIK EGINGO DUT AHAL DANA
TA DANTZATZEN DAKIDANA.
MUGITZEN HASI NAIZ ETA
ONDO AL ZAUDE, LAZTANA?
- Antoni** EZ IZAN NIRE ARDURA,
ONDO HARTU DUT POSTURA.
HOLAN DANTZATZEN JARRAITU
EZ GALTZEKO KALENTURA.
- Anton** MOMENTU EROTIKOA,
DANTZALDI ERRITMIKOA,
BEGIETAN TXIBIRITAK,
BENETAN FANTASTIKOA.

Antoni HEMEN ZUREKIN ETZANDA
ETORRI JATA EZTANDA.
ITZELA, HARRIGARRIA
ETA GOZOA IZAN DA.

Anton NESKA IKARAGARRIA,
ZU ZARA URREGORRIA.
BESTE BAT BOTA AURRETIK
EKARRI TABAKORRIA.

Antoni IZAN DUGUN DINAMIKA,
GURE ARTEKO KIMIKA...
JARRAIAN BESTE BAT NAHI DUT
NAIZ TA MULTIORGASMIKA.

Anton ORAIN ALDATUKO DUT GAIZ.
GAUZA BATEZ OHARTU HAIZ?
HAINBAT PERTSONA AURREAN
DAUDELA KONTURATU NAIZ.

Antoni EZ ZAITEZ IZAN TENTELA
HOTZITUKO NAIZ BESTELA.
HOR AURREAN DAUDEN HOIEK
BEGIRA GOZA DEZATELA.

Anton ANTONI ZEIN AMOROSA,
SINPATIKA TA AIROSA.
ZU ZARA EUSKAL HERRIKO
MAITASUNAREN JAINKOSA.

Antoniren hausnarketa:

NESKA GAZTE EDO DAMA
ONDO LOHITU ZURE FAMA.
NORBERAK GOZAUTAKOA
NORBERAK ALDEAN DARAMA.